

## Hegoaldeko errefuxiatuak Garazin gaindi

E.: eta gero beste gauza erran duxuna hementik kanpo re, nola jiten zien hunat ere... Jin ziela gipuzkoano ta bizkaino anitz gerla denboran, hori ere erran daaxu lehen.

M.: oui, oui, eta ono bada batto, ina du liburua ina, ta harek kondatu du eta bizkainoek haurrak untziz egorri zuzten frankixtak sartu zielaik, ta hori doluzioneat arribatu zien, ta hortik partitu zien, ta Doniane-Garazin e hartu omen zuten andana at, ta ono beren apezainkin zien, eh, beren apeza re ba, bazuten hurrek segitzalia, eta Donianen, igandia omen zen gertatu, doaikabe, ta heldu zien, ta hor ez dakit, Zitadelan eo nun in zeeten tokia haur orier, eta horgo jendiak tuka hurrer, tuka, hori nik ez nakien, eh!

E.: ah bai, eh?

M.: uste uzu hea hemen e biziki behatu, hantik eldu zien ber, komunistak zien, tu parles, errazu, ikusten apeza re an zela. Hori ez nakien, ta bada hemen Aux Albeaux batek in du liburu bat, bere herriko... Hemengo ixtoria, eh, ta harek kondatua da ori.

E.: eta xuk ere ezautzen... Hemen Ahatsan ere ezautu tuxu, ez?

M.: ah ba, hemen langile zienak, horik eta Camp de Gursetik jinak zien, gaizoak kontenxko, Camp de Gursen ezarriak zuzten, eta han zaintzen zuzten, eh, soldadoek, han atxikitzen, eta hemen laborariak falta zuzten, donc, ala ere, soldado gerlaikin joan baitzien emengoak, eta han izan zien xeka, ta bildu zuzten, ez dakit bate, zortzi mutiko-edo hemen, ta gero Mendiben ta Lekunberrin ta re bazuzten ola-ola, bena Aatsan berian ene ustez zortzi bazien, ta etxe batian, donc, bazien biga, ta batto Gasnatein bizi izan da, Bizkaino, Baxilio, eta gero Donianen bizi izan da ura, hola, hargintzan, ba, ba, gero, gerlatik landa, ba, ba.

E.: so ixu.

M.: plasturgoan, ta baizu, ba faiantza zartzen ta re, erten dute, ba, ez ziela beti erreusitzen e, bazen hor eta erretratogile at, fotografista at, Biere, ta harek arreñarazi zakon, ta ez dakit, plafona, zeit faltsu ezarria, ta “dis-donc, Baxilio, ton plafon il fait ttik, il fait ttik”, “ça fait rien”, ta biamunian edo astirian berriz joaiten zako: “dis-donc, il fait toujours ttik”, “ça fait rien ttik ou ttak, ça fait rien, non, non”, ba bena geo plafona jin zen lurreat.

E.: (irriak), beraz, ez zuxun sobera una.

M.: gero Bierek erran zakon “ton plafon il est par terre maintenant, c’est pas toi qui va l’arranger, eh, c’est fini”, ez zakon hari inaazi geio.

E.: ta gipuzkoano horiek hunak horiek...

M.: ta gero, beste noaitek erran zakoten, ez zuten neor e atxemaiten al, brikola zeit bazuten iteko ospitalian, ala zeit murru ttipi, ta “ba, ola bada Baxilio artzen dena”, “ah bon”, komisione egortzen dakote, ta jiten da, ta serora xaar bat zen, gaixoa, borta idekitzen dako, ta “qu’est-ce vous voulez?”, ta “je viens faire la mur”- le mur orde, eta je viens faire l’amour konprenitzen ahal zen – “zer?”, “je viens faire la mur”. Le mur zen (irriak).

E.: ze ona ori, eh, (irriak).

M.: jakizazu kantonamendian inguria in ziela Baxilioin aferak.

E.: seurro ba, kantonamendia guti uxu! Ze ona, jo!

M.: je viens faire la mur.

E.: gaixoa. Untsa, untsa.

M.: geo ez dakit beti untsa ikusia zenez, zeen bazien orduko hoita amost urte gizon arek, eh, una jin zelaik, ta doaike, errepublikano ta armadan, ta noait izana zen, ta beti hor Donianen zeait biltzarretan, gizon batek, hor, Españakaldetik jin delegazione atekin, ta zoon beste batzuen bea, ta batek erraiten dako bertziari “ikusten duk leio artan ikusten duk nor den?”, hor bizi zen, pentsionia iten zien ostatu baten, Café Garat Donianen bakizu nun den? Horgo gaiñean bizi zen, Baxilio, ta “kusten duk nor den gaiñ artan?”, “urde zikina, eta ez duk neor e izan gizon orren garbitzeko?” bestiak, ta bestiak untsa konpreintzen zien, eh, izpurarra zen, eta española untsa iten zien, eta iten zien “mon vieux, kopeta ortan erraiteko, gizon orrek baik zeait inik nunbait”, zer? “Ez duk neor e izan gizon orren garbitzeko?”, eta debruxen kopetan, eh, omen.

E.: ba, bazizketxin hak e etsaiak.

M.: ba, errepublikano armadan zen, han noaiti ina zien jukutrukeria menturaz, oui, oui, gaixoa.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala